

Zegama

Aurkibidea

Udalerria: Zegama

Sarrera



Aizkorriren magalean kokatuta dago Zegama, Gipuzkoa eta Arabako Lurralde Historikoen artean. Ekonomi jarduera nagusiak industrian daude, artzaintza eta nekazaritza-jarduerak ere neurri batean mantentzen direlarik. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 1.561
- **Euskaldunak:** %89,3

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **49**
- Zintak: **65**

- Pasarteak: **73**
- Transkribatutakoak: **18**
- Audioak: **24**
- Bideoak: **35**

Proiektuak

- Aitor Gurrutxagaren fondoa
- Atzoko Zegama
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan
- Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza

Hizlariak

Bitoriana Agirre Aristimuño (1923)



1923an jaioa Zegamako Altzibar auzoko Altzibar baserrian. Ama Latxanekoa eta aita Arzalanekoa zituen eta 7 anai-arrebatan bosgarrena da. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu du eta Zegaman esnea saltzen eta arrautzak saltzen Ordizian ibilia da. Eskolan Zegaman ibili zen 11 urtera arte eta ondoren etxeko beharretara bueltatu zen. Zegamako inprentan lanean ibilia da eta 19rekin inprentako nagusien senideen etxera joan zen neskame, Irunera. 26 urterekin ezkondu zen Zegamako Olatxora eta 2 alaba izan zituen.

Juan Aldasoro Zabaleta (1933)



Zegamako Buenavista baserrikoa. Bost anaietatik gazteena. Etxean beti ezagutu zuen artzaintza eta bi aldeetatik zetorkion artzain sena. Probatu zuen beste lanbiderik, hura ez zela bizitzan egin nahi zuena jakiteko lain. Eta horrela hartu zuen baserrian gelditzeko erabakia. Auzokide [Andres Asurmendi "Sakona"](#)k eta biek udan Azerizuloetan 15 urte pasatu zituzten, txabola banatan.

Begoña Alustiza Aierbe (1929)



Zegamako Langaenea baserrian jaioa 1929an. Aita Arrietatikikoa eta ama Iritxokoa zituen, biak zegamarrak eta zortzi anai-arreba ziren sendian. Eskolan San Pedro auzoan ibili zen denbora laburrean izan bazen ere; 11 urte zituela Segurako Arrabiola errotara joan zen neskame lau ume zaintzera. 13 urte zituen gerra hasi zenean, eta baserrian lanean aritu zen preso batek erdaraz ikastera eraman zituen aita eta biak Asturiasera; zortzi hilabetez egon ziren bertan. Asturiastik bueltan behizain ibili zen auzoko etxe batean. 24 urterekin ezkondu eta Urretxura joan zen bizitzera, bost seme-alaba izan zituen. Umetatik lan ugari egingo eta bizimodu gogorra eramandako emakumea da.

Jose Alustiza Berasategi (1915-2012)



Zegamako Arakama Enea (Akamane) baserrian jaioa 1915ean. Ama bertakoa eta aita Egurtzakoa zituen, biak zegamarrak eta hamar senideetan zortzigarrena da. Eskolan, auzoan bertan (San Pedro) eta herriko eskolan ibili zen. 9 urte zituenerako, artzaintza munduari lotu zitzaion eta Aizkorri barreneko bordan egoten zen. Arkume garaian zaldi-gurdian eramaten zituen Ordiziako azokara saltzera. Auzoko familia batek zuen errota, eta artoa hartu eta alea eramaten zuen errotara, langintza horretan aritu zen eta askotan egiten zuen lo errotan bertan. Gerra garaian, soldadu ibili zen, baita ferrobiario baten semeak animatuta trafikoko polizi azterketa gairatu eta Bartzelona eta Donostian lan horretan aritu ere. Gerratean, bonba batek ondoan eztanda egin eta belarri bateko entzumena galdu zuen. Gerra ondorenean, Patrizio Etxeberrian, Legorretako harrobian eta kaminero lanetan aritu zen, besteak beste.

Joxe Mari Arakama

Artzain ibilitakoa. 1932an kendu omen zuen artaldea. Joxe Mariren aita, Joane, Eguzkitzazar baserrikoa, auzoko baten "asistente" gisa ibili zen gerra karlistan. Gerra ostean, berriz, Somorrostron ibili zen lanean, meatzeetan. Kontu horiek eta beste hainbat kontatu zituen Joxe Mari Xabier Azurmendik egindako elkarrizketetan.

Joxe Antonio Arizkorreta

Zegamako beste hainbat familiek bezala, Gosategikoek ere etxe ardiak dituzte, baina uda partean partzoneriako mendira igotzen dituzte. Bestaldetik, teknika modernoak, intseminazioa, elikadura kontrolatua... erabiltzen dituzte. Beraz, etxe ardien eta artzaintza profesionalaren arteko zubi direla esan daiteke. [Juani Peñagarikano](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.



Fermin Arrieta (1933)

Tradizio handiko artzain familiakoa. [Lorentxa Etxezarreta](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Dominika Arrizabalaga Asurmendi (1915-2015)



Zegamako Asemendi Muñoa baserrian jaioa. Lorentzo Etxeberriaren alarguna. Bizi guztia ardi artean eman du, eta hainbat urte artzain ibiltari modura: Urbian, Durangaldean, Bilbo inguruan, Oiartzunen... Hamabi urterekin hasi zen bere anaia Donatorekin ardiak zaintzen, eta ezkondu ere artzain batekin egin zen. Senarra hil ondoren, Dominikak berak bakarrik jarraitu zuen lanarekin, Urbiako Oltzan. Erretiratu ostean, Legazpira joan zen bizitzera.

Lucia Arrondo Aizpeolea (1922-2009)

Andres Asurmendi Arrizabalaga Sakona (1932)



Zegamako Pagoeta baserrikoa. Artzaintza izan zen etxean ikusi eta beti izan zuen bizibidea. Hiru senideetatik gazteena bazen ere, gurasoen ardien jabe bera egin zen. 1992 inguruan utzi zuen artzaintza. Auzokide [Juan Aldasoro](#)k eta biek udan Azerizuloetan 15 urte pasatu zituzten, txabola banatan.

Belen Asurmendi Gorostizu-Orkaiztegi



Julio Asurmendi "Arretxe" eta Joakina Gorostizu-Orkaiztegiaren alaba. Eskolan 14 urtera arte ibili eta ondoren aitarekin artzain ibili zen 3 urtez. Gero ahizpa Maitek hartu zion txanda, bera Donostiara joan baitzen bizitzera. Argazkian, guraso eta anai-arrebekin.



Maite Asurmendi Gorostizu-Orkaiztegi

Julio Asurmendi "Arretxe" eta Joakina Gorostizu-Orkaiztegiaren alaba. Aitarekin artzain lanetan ibili zen. Argazkian, guraso eta anai-arrebekin.



Sabino Asurmendi Otaegi (1939)

Maxkarra baserrikoa. Sabinok betitik ezagutu ditu ardiak etxean eta berak txiki txikitatik izan ditu gustuko. 16 urte zituenean hil zen aita eta orduan anaia Juliok hartu zuen artaldea. Sabino lurren aritu zen lanean 26 urte arte. Baina gero ardi gehiago erosi eta artaldea erdi bana egin zuten bi anaiek.

Joxepa Azurmendi

Ama Zegamako Latsane baserrikoa. Zegamako kontu ugari kontatu zituen Xabier Azurmendik Zegamako ahozko ondarea jasotzeko egindako elkarrizketetan. Elkarrizketetako batean bere koinata [Iñaxi Gereñu](#)k ere parte hartu zuen.

Ramona Azurmendi Zabaleta (1929)



Ramona Zegamako Urrutiana baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa, ama, berriz, Zegamako Irekaitz baserrikoa. Bederatzi senide ziren, bera eta bere bikia azken aurrekoak. Eskolan 12 urte zituen arte ibili zen eta gaztetan oso gustuko zuen festa eta erromerietan dantza egitea. Segurako Mendoza baserrira ezkondu zen, baina semeak kaleko etxe batean izan zituen. 38 urte zituela Legazpira joan zen bizitzera, senarra Patrizionen hasi baitzen lanean.

Maria Berasategi (1904-2001)

Zegaman jaioa, Araian ezkonduakoa eta Legazpin bizi izandakoa, harik eta 2001ean 97 urte zituela hil zen arte. Hala ere, Zegamako hizkera zerabilen. Sendabelarren gainean jakinduria handia zuen eta elkarrizketan gaztetako kontuak aipatzen ditu. Elkarrizketatzailea bere iloba izen zen.

Maria Dolores Berasategi Berasategi (1932)



Zegamako Atxatxe baserrian jaio zen. Aita Egurtza baserrian jaioa zuen, baina gazte zelarik joan zen bertara bizitzera. Ama Zegamako Lokatxa baserrikoa zuen. Zazpi senidetan seigarrena, jaiotetxea herritik gertu zuen eta bere lagunekin jolasean aritzea asko gustatzen zitzaion. Eskolan, marraztea eta eskulanak egitea zuen gustokoen. Gaztetan ez zuen neskame joateko aukerarik izan, amona itsua zuen eta bera zaindu beharra izan zuen, amak bestela ere bazuen-eta lana. 23 urterekin, aitak jaiotetxetik gertu egin zion etxe batera ezkondu eta 4 alaba izan zituen. Senarra okina zuenez, ogia saltzen aritzeaz gain, langileren batek kale eginez gero bere postua bete beharra izaten zuen.

Pio Berasategi Berasategi (1935)



Zegamako Atxatxe baserrian jaio zen. Aita Egurtza baserrian jaioa zuen, baina gazte zelarik joan zen bertara bizitzera. Ama Zegamako Lokatxa baserrikoa zuen. Etxean bizi zen aitona kontulari ona zuen eta atentzio handiz entzuten zituen hark kontatutakoak. Eskolan 14 urte bete zituen arte ibili zen: ez zituen gustoko zigorrak, ikasle zaharragoek gaztegoengan zuten tratua, Franco garaiko kantuak abestu beharra... Kanean lagunekin jolasean gustora aritzen zen, ordea. Hamazazpi urte zituela, Madrilerira joan zen Arte Ederrak ikastera, bertan zituen izeba-osaben etxera. Hasieran moldatzea zaila egin bazitzaion ere, bertan igaro zituen 50 urte, hainbat lan ezberdinetan ibili zelarik. Liburuak ere argitaratu zituen, horietako bat aitona kontatutako istorioetan oinarritua.

ZEG-028 Bertsoak

Xabier Azurmendik Zegaman jasotako bertso eta kanta zaharrak. Bi gizonezko dira kantari ari direnak.

Joxe Etxeberria (1953)



Gaztelukoa izatez, Zegamako Aitamarren baserriko [Mari Paz Oiarbide](#)rekin ezkondua. Joxek etxean ardiak ezagutu izan ditu beti. Artegia Idiazabalen dute eta gaztategia Zegaman.

Joxe Etxeberria Arrizabalaga

Artzain familiakoa, Dominika Arrizabalaga eta Lorentzo Etxeberriaren seme zaharrena. Joxek berak afiziorik ez zuela eta 16 urterekin Legazpin lantegian hasi zen. Elkarrizketa, [amarekin](#) eta [arreba Pili](#)rekin batera egin zitzaion.

Pili Etxeberria Arrizabalaga

Artzain familiakoa, Dominika Arrizabalaga eta Lorentzo Etxeberriaren alaba. Pili berak amarekin artzain 11 urtetatik ezkondu arteko urteak egin zituen. Elkarrizketa, [amarekin](#) eta [anaia Joxe](#)rekin batera egin zitzaion.

Lorentxa Etxezarreta (1943)



Segurako Madalena baserrian jaioa. Tradizio handiko artzain familiakoa, Urbia inguruetan sustraitua. Umetan Oltzen pasatzen zituen udak Lorentxaren familiak. [Fermin Arrieta](#) senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Mikel Etxezarreta Goiburu (1963)



Mikel, Urbian aspalditik dauden bi artzain familia, Etxezarretarrak eta Goiburutarrak elkartuta sortutako artzainetako bat da. Sei senideetatik mutil gazteena da bera eta beste bi anaiak ere artzain dabilta, Felix eta [Santi](#). Emaztea [Eli Arrillaga de Aguirre](#) zarauztarra du, artzaina hau ere. Bien artaldeak batu eta elkarrekin jarraitu zuten lanbidean. Olaberrian bizi ziren elkarrizketa egin zitzaizenean, "Aizpea" da beraien esplotazioa eta izen berarekin komertzializatzen dute gazta ere.

Santi Etxezarreta Goiburu (1962)



Artzain tradizio handiko familiakoa, bai aitaren eta bai amaren aldetik. Bizi guztian udak Urbian pasatu ditu. Olaberriko Abaroa Baserrian bizi da, herri bereko emazte [Idoia Lasa](#)rekin (Iriarte baserrikoa) eta seme-alabekin. Artzain izatea garbi sentitu eta bizi izan du Santik. Sei senideetatik, 3 neska eta 3 mutil, hiru anaiak artzainak dira. [Mikel Etxezarreta](#) ere lan honetarako elkarrizketatua izan zen.



Joxepa Gorostizu-Orkaiztegi (1937)

Antonio Guridi Aierbe (1921)



Zegamako Dinti auzoko Arakama baserrian jaio zen 1921ean. Ama Zegamako Anduezakoa eta aita segurarra zituen; 4 anai-arrebatan zaharrena da. Zegamako eskolan ibili zen umetan. Baserritik bizi ziren: behiak zituzten etxean eta esne-saltzaile ibili zen. Gerra garaia gertutik ezagutu zuen, Zegamako mendi gainetik Anbotoko tiroketak entzun eta ikusten zituzten. Soldadu egona da Lesakan, Elizondon, Erratzun... Umetatik erleak gustatu izan zaizkio eta 16 urterekin bere erlategia jarri zuen. Erleen inguruko kontuak azaltzen dizkigu.

ZEG-027 Hainbat hizlari

Zegamako hainbat gizon elkarrizketatu zituen Xabier Azurmendik, besteak beste, ikazkintza kontuak jasotzeko.

ZEG-003 Hizlari ezezaguna

ZEG-017 Hizlari ezezaguna

Zegamako Eguzkitzezar baserriko Joaneren biloba (alabaren semea). Aitonari gertatutako kontuak eta bestelako garai bateko Zegamako kontuak kontatu zituen Xabier Azurmendik herriko ahozko ondarea jasotzeko egindako elkarrizketan.

ZEG-029 Hizlari ezezaguna

1941-1945 inguruko kontuak. Zegamako trenbidearen geralekua egin zeneko kontuak kontatzen ditu gizonezko honek. Bera ere hantxe ibili omen zen lanean, artean mutikoa zela.

ZEG-046 Hizlari ezezaguna

Angel Irastorza



Murgialdai baserrikoa. 38 urte kamioi-gidari gisa pasa ondoren hasi zen artzaintzan, [Kontxi Larrea](#) emaztearekin batera.

Eduardo Irastorza

Zegamarra. Bederatzi urterekin Arabara joan zen morroi, erdaraz ikaste aldera. Xabier Azurmendik hainbat kontu jaso zizkion Zegamako ahozko ondarea jasotzen ibili zenean.

Mertxe Irastorza Arrieta (1935)



Zegamako Garako kale etxean jaio zen. Gurasoak zegamarrak zituen: aita Antxietxeberri baserrikoa eta ama Olaberri baserrikoa. Aita papelerako txoferra zen eta amak etxearen behealdean zuten tabernan egiten zuen lan, Mertxe ere ibiltzen zen amari tabernako lanetan laguntzen. Eskolara Zegamako mojetara joan zen, zortzi urte zituela hasi eta hamabost urte zituen arte. Eskola bukatu eta inprentan hasi zen lanean, bertan ibili zen hogeita hamar urtez, inprenta itxi zen arte.

Patxi Katarain Apaolaza Txatxipi (1953)




Zegamako Txaratxipi baserrian jaioa, Olanan auzoan bizi zen elkarrizketa egin zitzaionean, 2004an. Beti artzain ibilia, lehendabizi osaba Simon Katarainekin eta gero bere ardiekin. Txabolan udan gazta batzuk egiten bazituen ere, batez ere esnea eta arkumeak saltzen zituen.

Santi Katarain Apaolaza (1952)



Goiena Berri baserrikoa. Aita, Eugenio Katarain ere, artzain izan zen hainbat urtez. Elkarrizketa egin zitzaionean, 2004an, 230 bat buruko artaldea zuen.

Kontxi Larrea Aldasoro



Murgialdai baserrikoa. Kontxi Larreak bere jaiotetxean beti ezagutu izan ditu ardiak, lau senideetatik bik artzaintza izan dute ogibide. [Angel Irastorza](#) senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.



Serafina Larrea Aldasoro (1945)

Etxeberri Garakoan jaioa. Lau senideren arteko zaharrena. Familiar anaia Joxe ere artzaina da eta Kontxi ahizparen etxean ere bada ardi mordoxka. Senarra zena, Aitamarrango Joxe Mari Oiarbide ere artzaina zen.

Anastasia Larrea Arakama (1900)

Zegamarra, Larreakoa baserrian jaioa. Gaztetatik neskame ibili zen hainbat herri eta etxetan. Fabrikan ere egin zuen lan. Zegamako aspaldiko kontuak kontatzen ditu. 1990. urtean egin zioten grabazioa, EHUko "Dialektologia" ikasgairako.

Idoia Lasa Arrizubieta



Iriarte baserrikoa jaiotzez, [Santi Etxezarreta](#) senarra eta seme-alabekin Olaberriko Abaroa baserrian bizi da. Lantegiko lanak Urbiako joan-etorriekin uztartzen ditu Idoiak, han egoten baita familia artaldearekin uda pasatzen.

Bitoriano Mujika Arrieta (1918)



Anaietan zaharrena, Bitoriano gelditu zen Ugarte baserriarekin. Maria Pilar emaztearekin, bi seme eta bi alaba dituzte. Artzain izan da bizi bidez. Etxe berean bizi zen anaia [Gabinok](#), fabrikan lana egin arren, bertatik bertara bizi izan zuen artzaintza. 120 bat buruko artaldearekin bizi izan zen familia. Bi anaiekin izandako elkarrizketan bildutakoek artzaintzak eta gizarteak berak azken mende erdian izan dituzten aldaketak nabarmen argi uzten dituzte. Argazkian, ezkerrekoa da Bitoriano.

Gabino Mujika Arrieta (1926-2014)



Artzain bizi bidez anaia [Bitoriano](#) izan zen. Etxe berean bizi zen Gabinok, fabrikan lana egin arren, bertatik bertara bizi izan zuen artzaintza. 120 bat buruko artaldearekin bizi izan zen familia. Bi anaiekin izandako elkarrizketan bildutakoek artzaintzak eta gizarteak berak azken mende erdian izan dituzten aldaketak nabarmen argi uzten dituzte. Argazkian, eskubikoa da Gabino.

Karmen Oiarbide Agirre (1924)



1924an jaioa Zegamako Dinti baserrian. Ama bertakoa eta aita Arizti berrikoa zituen eta bost ahizpetan gazteena da. Umetatik artzaintza izan du afizio eta ofizio, familiatik datorkio Karmeni, laugarren generazioko artzaina dugu bera. Eskolan bederatzi urtera arte ibili bazen ere zazpi urterekin Dintitik Arizti Berrira joan eta artzain lanetan hasia zen jada. Uda Aizkorri ondoan eta negua Zegamako Arakama azpikoa errotan pasatzen zuen aitarekin batera. Berrehun bat ardiko artaldea zuten eta 19 urterekin aita eta haren lehengusu batek Urbasan etxea egin eta bertara joan ziren. Senarra artzaina bilatu zuen eta bien artaldeak batuta ibili izan dituzte, hirurehun ardi inguru. Gaur egun Zegaman bizi da eta lau seme-alaba ditu.

Mari Paz Oiarbide Larrea (1968)



Mari Paz Zegamako Aitamarren baserrian jaioa da. Gazteluko [Joxe Etxeberria](#)rekin ezkondua. Aitaren eta amaren aldetik artzain familiakoa. Gurasoekin lehenbizi, gero berak hartu zuen etxeko artzain segida. Artegia Idiazabalen dute eta gaztategia Zegaman.

ZEG-016 Otoitzak

Xabier Azurmendik Zegaman bildutako zenbait otoitz. Lekukoak gizonezko bat eta emakumezko bat dira.

Juani Peñagarikano

Zegamako beste hainbat familiek bezala, Gosategikoek ere etxe ardiak dituzte, baina uda partean partzoneriako mendira igotzen dituzte. Bestaldetik, teknika modernoak, intseminazioa, elikadura kontrolatua... erabiltzen dituzte. Beraz, etxe ardien eta artzaintza profesionalaren arteko zubi direla esan daiteke. [Joxe Antonio Arizkorreta](#) senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.



Inazio Urbizu Arrieta (1932)

Opaintegi zaharrean jaioa, 1932an. Xabier Azurmendik herrikideak hainbat kontu jaso zizkion 1980-1981 inguruan.

Nikolas Zabaleta Ariztimuño (1909-2010)



1909an jaioa Zegamako Altziturriazpikoa baserrian. Sei senidetan zaharrena. Afrikan egon zen soldadu 1930eko azarotik 1931ra. Gaztetan hainbat lan egin ostean, Irunen egon zen arozgintza ikasten; aldi berean Hendaian aritu zen lanean. Baina, maiorazgoa zenez, Zegamara itzuli zen eta Aierdiko Bittorirekin ezkondu ondoren zortzi seme-alaba izan zituzten. Arotz lana oso gokoko bazuen ere, baserriko ogibideari heldu behar izan zion. Xabier Azurmendik egindako elkarrizketetan gaztetan Araba aldera egindako bidaiak eta Zegamari buruzko kontu ugari azaltzen ditu.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Aitonaren gaztetako ibilerak

- **Hizlaria(k)**: Guridi Aierbe, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZEG-009/004
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:08:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Lanbideak » Etxeginak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Aitonak kontatu ohi zien behin erre kara behia eraman zueneko istorioa. Aitonak bi egun eman zituen eskolan: liskarra izan zuen ikaskide batekin, maisuak jo egin zuen eta ordutik gehiago ez zen itzuli. 16 urterekin Donostiara joan zen harginaren laguntzaile izateko, Santa Katalina zubia egiten. Handik Iruñera joan zen lanera, San Kristobal go gorlekua egitera.

Transkripzioa

-“O sea que” zeorrek ikusita ez bazan’ e kontatuta aurreko generazioko kontuk’ e kontauko zittuen aitton amonak?

-“Hombre”, bai, bai, esan, esan itten zitun aittonak, aittonak e, gaztia zan garaian hemen, hor e barrio, kaleko barrio hortan bizi izandakoa zan ta, hor jaio ta, motikoa ya haundia in ta, ta [...] aittonan batek esan omen zion e, behie ura eratea erreka zijola “motel! prakak ez badittuk jazten kapau ingo haut” ta esan omen zion amai “ni gehio behiekin erreka ez naiz jungo ez badiozu prakak eitten, ta [...] Martiñek esan dit kapau ingo naula”. Hori kontatzen zigun harek.

-Estuasun earra eamango zun harek etxea?

-Estuasune bai, bai, garai hartako mutikok, ez zan kobardea, gaurko mutikoa izan balitz, e, bixkorra izango zan hua, gu baiño bixkorragoa. Gero ba klaro, ordun mutikok haundik ta haundik e, eskola jun da ta eskolan jun da bi egun bakarrik eskolan indakoa zan.

-Bi egun in zittun?

-Bi egun. Eskola jun omen zan ta, eskolan haserretu ta, mutiko mutiko

haundie ta beste mutikon batekin ta, ein du burrukaldie ta maixuk uaindio sekulako pasarea. Ta pasarea eman zion garaien'e, lehiotik salto ein ta irten ta etxea jun. Ta bere aittek esan omen zion "ze pasau zak, uaiñ etxea etortzeko" ta "kixton pasarea eman dit aittek, e, maixuk" ta "maixuk jo hauela? nik esango zioat hareri". Mesa nausita juten omen zien ordun'e maixuk eta horiek danak apaizek'e, maittek hori izaten zien maixuk eta hori, herrie eamaten zuenak, eta jun ta esan omen zion e "zuk jo iñ emen dezu nere semea" "bai! earki mezita" esan emen zion "ba ez dezu gehio joko" ta gehio jun bare.

-Gehio ez zan jun?

-Gero handik hamasei urte zittun garaian Donostia jun emen zan e, pintxe, argiñan pintxe, "puente Santa Catalina" ein zuen garaien. Eta han ofizioa ikasi zon garaien, han, han lehendabizi pintxe jungo zan ta gero lanen ikasiko zon ta lana ikusi ta etorri honuntza etorri zan garaien e, lana azaldu omen zan Panplonan "puente San Cristobal" a itten, ta hautza jundakoa. Ta han hala esaten zon han jende, han leku askotakok ibili omen zien ta han'e metroa utzi ta beste aldea beitzen bazendun atzea beitzekon han ez omen zan eoten metroik. Hola kontatzen zittun aittonak, nere aittonak.

1.2. Aita Seguran bizitakoa 16 urtera arte

- **Hizlaria(k):** Guridi Aierbe, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZEG-009/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:09:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Aita Seguran bizi izan zen 16 urte bitartean. Han aspertu egiten zen eta alde egitea erabaki zuen: baserri bat erosi eta konpondu zuen. Orduan, fabrika batean hasi zen lanean 6 pezetaren truke.

Transkripzioa

-Aitta berriz Seguran hamasei urte bittarten bizi izandakoa ta gero handik minata Mutilloko minata, minata Mutillon hor..

-[...] minak o?

-Minatan ta gero hemen Segurako kalen'e aburrittu itten omen zon harek eta aittei esan omen zion "ni hemendik noabaitt, noabaitt noabaitt jungo nitzake ni hemendik, hemen eon, bestek indako putzek'e denak jan behar due mina zahar hoitan ta", "ba motel" e, argiña zan gero aittona, argiñ [...] zun, etxeak in ta hola ibiltzen zana, "badauzkat ba nik hemen señoan [...] lana, nik asko in diat eta haik etxe zahar bat bazeukek iñor bizi ez dana, bi familik alde indakoa ta nik arreglauko nitek hura, eguna [...] harek'e" ta hala harek erosi baserrie, ta gero bere bizi guztie baserrik arreglatzen pasau zon ta aittek handi ba fabrika, hamabi orduko lana, hamabi orduko lana eta sei pezta jornala. Ta pentsa zazu jateko generoa ze galesti zeon ordun, ni akordaten naiz, mutiko txiki txikie nitzela, esan zon "artzaiena jun ber det, eukiko dek ardi gixenen bat ta ekarri ta zeak itteko, mondejuk eta itteko", ta hala ekarri zun ardi txiki bat ondio, fotografia ikusita bezela dauket, ez dauket fotografik baiño. Muittur gorrie, ardi txiki bat, gixen gixena, umeik eta in bare gelditutakon bat ta bost duro pauta, pentsatu sei peztako jornaletik bost duro, nola zeon jateko gauzea galesti. Asike

bakoitzak berak produzitu behar izaten zon bere lurretan, gero lur hok danak labrau itten zien, lur hok danak nola edo hala labrau itten zien.

2. Baserria

2.1. Baserritik bizi: lurra landu eta ganadua zaindu

- **Hizlaria(k):** Guridi Aierbe, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZEG-009/006
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Etxe inguruko lursailak lantzen zituzten: artoa, garia, arbia, babarruna... ereiten zituzten. Ogia etxean egiten zuten astean behin. Lehengo behiak askoz okerragoak izaten ziren, bai esnetarako, bai haragitarako. Goizean eta iluntzean, taloa eta esnea jaten zuten etxean. Garia, artoa, gaztainak eta fruta oinarrizkoak ziren elikaduran.

Transkripzioa

-Zuek'e etxe inguruko terrenotan labrantza itten zenuen?

-Bai, bai, bai guk'e bai ta beste gaiñentzeko danak'e bai.

-Ze lantzen zenuen?

-Ba artoa ta garie ta arbie ta hori ta babarruna ta artoa izaten zan asko, harekin familik hazitzen zittun hemen jendek, harekin hazten zittuen familik, zeatik garik, garik, gutxigo ematen zon, garie izaten zan hemen garie e, baiño klaro urtabek izaten zien bastante txarrak, leku ez da hain apropiatue hau garindako, ta gero gari hura ba errota eman ta iho ta uain'e esaten deu "ba, ogie, ogie zuri hori baiño beste hori hobea emen da" ta ba, urdun nahi ez ta jaten zan e zaie, nahasie zeatik ezen.

-Zeona [...]

-Bai batzuk eta izaten zien han pasau ta ogie in ta, ordun ogi zaharrik ez zan izaten, igual asten behiñ eo ogie in laben, ta halaxe bizi. Ta halaxe ta gero behiek, behiek'e ordun, behiek'e uaingo razak ez zien izaten, zien e askoz txarragok, esne-behi txarragok ta haragitako're txarragok ordun, danetatik txarragok. Gero janik ez zan izaten handako, zeati lurre dana moittu itten zan, ta zelai gutxi zan, ta larren ta kanpon ta ahal zan bezela bizi izan behar izaten zuen behiek'e. Ta behiek hain txarrak ez zienak, esnea're juxtu juxtu ematen zuen familiako, batzutan exkax. Ta taloa, goizen taloa ta esnea gosaltzen, ta illuntzan berriz taloa ta esnea.

-Baiño bai earra zon bitarten ezta? Bat'e ez zan hobea izango!

-A, bat'e ez, bat'e eza zeukenak ta exkax zeukenak gaizki, oso gaizki. Ta eitten zan ordun ba, eguerdin generalen, bazkaltzeko garaian ta, ogie, ta ogie urte guzin ogi hutsekin ez zan, ez zan aillatzen baserri askota behintzat, ez zan aillatzen garie urte guziako ta artoa sartzen zan tarten, artoa berriz izaten zon hemengo jendeak, ta gaztiñak etortzen zienen gaztiñak, eta frutea ba kanpotik ez zan etortzen ordun frutaik bertan izaten zien sagarrak eta hola.

2.2. Soroko lanak urte guztian zehar

- **Hizlaria(k):** Guridi Aierbe, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZEG-009/007
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Garia
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Garia ereiteko, klima hezeegia da hemengoa. Artoak nola landatzen zituzten azaltzen du. Urte guztian egoten zen lana soroan. Behia eta astoa laguntzeko erabiltzen zituzten. Lursailak etxe inguruan zituzten eta aldapatsuak ziren.

Transkripzioa

-Esan dezu garintzako hau toki txarra dala.

-Ez da haiñ ona ez.

-Zeatik?

-Zeatik? Klima txarra dalako, busti bustie dalako, klima...

-Hezegie dalako?

-Hezegie dalako bai.

-O sea ke lehorrigoa behar dulako?

-Lehorrigoa hobeto izaten zien urtabek ondo ematen zona garik ta beste urtabe batzuk ba lastoa iñ haundie ta etzanda ta, e bueno, ba gutxigo ematen zuenak.

-Esan dezu artoa ta arbie're itten zenduela?

-Artoa ta arton tarten indoabea ereiten zan, ta indoabea kantidadea izaten zan ordun.

-Arton tarten, zeatik?

-Arton tarten izaten zan indoabea.

-Zeatik arton tarten?

-Indoabea entenditzen entenditzen al diazu indoabea?

-Bai.

-Ba artoa iotzeati, gora. Indoabeak lurren ez dolako balio, lurren, igo in behar do gora, ta artoi eusten zion ordun. Ta artoi botatzen zikon ba, metro terditi o hola ta botatzen zien hiru ale ttak, ttak, ttak ereiteteo garaian, ta indoabeak irteten zuen behetik gora ta urtabek izaten zian bezela, asko emate zon harek arto tarten. Urte guztin soron ibili behar izaten zan ordun, emakumak eta gizonak. Gero jorratzen, atxurrekiñ han jorratzen, lurrak moitzeko trastek'e oso txarrak zien,...

-Ta zekiñ ibiltzen ziñeten behiekin?

-Behiekin, behie uztarrin lotu ta hezi ta uztarrin hatxe behiekin ta, astok iten zun bizimozu haundi, asko ematen zon, launtzen zon, harendako jana ekartzeko ta astoa izaten zan jana kargatzeko ta.

-Aja, astoa ibiltzen zenuen zuek?

-Astoa asko, bai beti astoa, bai.

-Terrenok etxe ingurun, etxe bueltan ala aparte?

-Bai, guk bai, guk hala geneutzen, etxian ingurun geneutzen terreno danak, aldapatxu.

-Ta han ibili in behar.

-Ta han hantxe goran ta gero behetik gora karga're behetik gora ekarri bihar izaten zan produktoa. Uain ordun abonoik ez zan, abonoa zan

ximaurre, ta ximaurre goitik behera eamateko etxek zeren, dare inda, uain'e ikusiko dittezue baserrik eta dare terrenoan guenen, ta hori zan dana ximaurre goitik behera eamateati.

-Apropos?

-Apropos egiten zuen generalmente, nik hala ikusten dittut e, hala inda.

-E...

-Ta uain in behar balitz ingo lieke terrenuan barrenen etxek.

-Barrenen?

-Bai, ta goiti behera ekartzeko, baiño uain uain bai, uain beste gauza batzuk dare.

2.3. Arbia ereiteko jakin beharrekoak

- **Hizlaria(k):** Guridi Aierbe, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZEG-009/009
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Garia
 - Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Gariak lurra asko txuputzen zuen. Gero arbia ereiten zuten eta horrek on egiten zion lurrari. Arbia noiz eta nola ereiten zen azaltzen du. Arbiak lurra ondu egiten du, lekaduna baita. Arbiaren probetxua ganaduarentzat izaten zen. Arbia eta gero, artoa eta indabak ereiten ziren.

Transkripzioa

-Antonio e, esan dezu arbia're itten zenuela.

-Bai, ereiten zan ba, baiño eiten zan ba garie, ta gariek eiten zun lurra txupatu, asko, eta gero eiten zan arbie, ta itxurea arbie ganadundako ta gaiña lurre meioratzeko.

-Arbie nola eitten zan?

-Arbie ereitten zan ba hazie, hazie rekojitzen zan ta.

-Nundik biltzen zenuen hazie?

-Hazie? Bertan etxen izaten zan.

-Bertan izaten zan.

-Bai, arbi hori eitten zien ba, soroti aldatu, aldatu o plantatu o ze esaten diozue?

-Aldau, aldau, bai.

-Ba aldau batza baten ta sei bat e, ondo, pues hola ta hak ematen zuen hazie, ta txorik jaten zuenen, ordun izaten zien komerik, txorik, txorik hazi hura jateatik, gaiztok izaten zien.

-Ze txorik jaten zuen?

-Txori, raro batzuk, uain hemen ikusten ez dienak, ta txori txiki batzuk jaten zuen hura. Ba hura hartzen gendun ta gero hura ba botatzen gendun ba, aguztun lehendabiziko egunetan. Eun jakiñek zittun hura ereiteko, este hamabi ingurue, batzuk beatzi esaten zuen, baiño beatzim indakok gaixoa harrapatzen zuen genealen, ta hamabin indakoak ya hamabiti aurea hamabiti ba hogeiea bittarten eo hola.

-Zeatik, illargin arabera o?

-Ez, ez, ez, ez illargi ez zion beitzen, [...] ez zion beitzen behintzat illargiri.

-Ta seitik hamabiako tarte hortan ze diferentzi zeon ba, o ze?
-Ba hortxe, hortxe ta handik atzea indakok're ez zon irabazten, hotza etortzen zan ta. Eta ia aguztun'e erditik atzea, ba hotza, hotza, ta hotzakin ez zon irabazten arbik, ordea arbie ba irabazten dona da zeakin, este bastante hotzakin, baiño arbie ereiten zan ba, ba hillen hamabi alden o hola aguztun hamabi alden o hola, ta gero iten zan ba jorratu, atxurrekin, bakandu, ta gero batzutan ale haundi haundi.
-Nola bakantzen zenuen?
-Ba eskukin raka raka raka raka raka raka raka, ta atxurrekiñ'e bai ta eskukin. Ta alea hola uzti behar, alek hola, hola.
-Ta behin bakandutakon?
-E, bai, bakandutakon ba, bakandu ta jorraudutakon ba utzi ta gero juten giñen ba bakantzen ta ganaduai emateko ateratzen ia hazitzen zien garaien, ia ondo bakanduta jartzen gendun, ta gero ia azkenen ba dana atatzten, poliki poliki poliki poliki.
-Eskuz ateatzen zenuen?
-Eskuz ateatzen zan dana ta eskuz garbittu eitten zan, kutxillo batekin dana eskuz garbitzen zan. Ta gero ba, hori eitten zan e arbie, ximaurre, ximaurre zeona arbiri botatzen zion. Ta gero arbie kendutakon ereitten zan artoa ta indoabea.
-Eta arbik zer zeukala esan dezu lurrei're?
-Mejorau itten dula arbik. Bai.
-Zearik?
-Ba nik uain izena ez dizut esango ba, arbie da ba, legubinosatakoa. Ta legubinoso danak eitten due e lurre mejoratu.
-Zeozer botatzen die lurrai o?
-Ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez ba ez zan abonoik ta ordun ez zan beste abonoik. Ta legubinoso danak eiten due mejoratu, ta nik usten det ereitten zuela arbie ordun ba lurre mejoratzeko gehien bat, eta ganaundako, bai, ganaundako behar zan ta ereitten zan, ganadua harekin mantentzen zan negun.
-E, arbin probetxue ganauntzako izaten zan?
-Bai, bai, ganadundako izaten zan. Ta gero eiten zan ba, handi ba artoa, artoa ta indoabea. Ta artoa ta indoabea ba ondo etorten zien haien ondon'e. Lurre zenbat eta gehio abonauta zeon ba hala.

2.4. Etxeko ura nondik ekartzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Guridi Aierbe, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZEG-009/010
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:18:40. **Bukatu**: 00:19:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Etxeko ura etxe inguruko errekatxo batetik lortzen zuten. Udan, ordea, lehortu egiten zenez, beheko errekarara joan behar izaten zuten. Arropa garbitzera ere hara joaten ziren.

Transkripzioa

-Antonio e, zuk lehen esan dezu errekatxo bat pasatzen zala handik, ude bazenuen etxen?

-Etxen ure, e, errekatxo bat etortzen zan, baiño errekatxo hori ba udan eiten zan e.
-Agortu?
-Agortu, ta ordun jun ber izaten zan beheko erreka, erreka hau behiek ura eatea e hauntza ematen zien eta garbietakoa jotzeanen, lixibea izaten zan ordun, ta lixibea jotzea're hauntza jun ber izaten zuen, bai.
-Etxetik gertu zeukazuen?
-Ez, gertu gertu ez, e, handik bostehun bat metroa, uain kamiñok dare inda ta bostehun metroa, baiño bide zahar zahar txar txar baten jun behar izaten zan handik behera.
-Itturik bazan?
-Itturrie badaula, hua zan itturrie, potzo zulo bat, ba gero jarri in zuen itturrie nik jarri nittun.
-Izenik bazun?
-Izena?
-Bai.
-E, putzu zuloa esaten zioen, putzu zuloa izena, beste itturrik han ez zan, manantialik ez zan.

2.5. Ura jartzeko, aitonak egindako asmakizuna

- **Hizlaria(k):** Guridi Aierbe, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZEG-009/012
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Iturritik ekartzen zuten ura jartzeko, Antonioren aitonak lau hankako ontzi bat asmatu zuen. Ontzi hari aska esaten zitzaion. Haren ondoan, argimutila egoten zen argia emateko.

Transkripzioa

-Baiño gero ingurutako baserrik iñok ez, ba han etxeko [...] baserrik'e ba erreka zeuken ondoren ta ereketa eamaten zuen balden ure hartuta etxen behar zuena. Ta gure etxen'e ba goiko putzu zulo hortati ekartzen zuen putzu zuloa zeon ba handi berrehun bat metroa o hola, zuk itturi esaten zun hori, ta handik hartzen zuen han'e zapabururik eoten zien, ta handik balden ekarri. Ta gero baldek eukitzeko, nere aittona zanak einda zeuken, eskulana eitten artista zan ta, holako aska bat egurrezkoa, lau hankakin, ta txulo bat, ta aska horren txulo hartati hango ur tantanak han balden zeuzkenak handi beste ontzi batea eroitzen zien, ta han eoten zien hak, balden ure, ta handi ba uain oliboa gastatzen dan bezela, aldiko pixkat gastau behar. Baiño ordun, ordun ez zeon dutxaik ta holakoik e.
-Antonio e harek ude juteko zure aittonak indako ontzi harek o lau hankako ontzi harek ze izen zun? Bakizu o?
-Aske, askea.
-Askea?
-Askea. Ta haren ondoren eoten zan, e, argik ez zeon, elektrizidadeik, eta ardimutila esaten zioen e zea baten este, behean'e tronko baten sartuta zuloa inda, eta holako alturako bat, txapela bezelako apala bat goien ta han jarri kandela bat eo argizarie ta jarri han ta famili guzie argi harekin, afaldu ein ta errosaio azaldu ta ohiea.

-A, argimutillle esatezu?
-Argimutillle esaten zioen harei. Hoixe, hoixe, lehenau uain larogei urteko kontuk die horik.
-Hoi da...
-Beste itturri horrena ez, itturri horrena gerogokoa.
-Geroztikoa?
-Bai.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Esnea banatzen Citroen txikian

- **Hizlaria(k)**: Guridi Aierbe, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZEG-009/013
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:25:11. **Bukatu**: 00:26:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Esnea banatzera Legazpira joaten zen bere Citroen txikian. Duela 50 urte inguru ekarri zuen bere lehenengo autoa. Auto hura erosteko egindakoak azaltzen ditu.

Transkripzioa

-Antonio esan dezu esne partitzen' de ibilitzakoa zeala.
-Bai ibilita nabil esne partitzen, Legazpin.
-E, esnetako behiek ordun?
-Bai, hemen'e erdi bazeon ordun, hemen'e hemen'e ya kooperatiba geneuken, pensuan kooperatiba bat, eta kooperatiba hortako jendea ba, e hemen esnea biltzen zonak ez zon ondo patzen ta gaizki patzen zola ta ez zola gehio patu nahi ta ein zien haikin haserrau ta, ein gendun ordun ba pentsau gendun jutea Legazpia ta, ta ni Legazpin esne partitzen ibilita no.
-Hemendik Legazpia juten ziñan?
-Legazpia ematen non, nik...
-Nun ematen zenun aston?
-Zit ez, ez, zitroen txiki bat ekarri non nik lehendabiziko Vigon montatu zittuen zitroenetako bat nik euki nun hemen.
-Hara!
-Bai.
-Zenbat urte zittuzun?
-E, e?
-Zenbat urte zuk lehendabiziko zitroena ekarri zendunen?
-Nik ez dakit ba uain...
-Ez zittuzun asko izango ezta?
-Uain e, uain e, uain berrogeita hamar urte inguru eo hola ekarri nun, lehendabizikoa, zitroena, hori e, lehendabiziko francesak hori montatzeko hasi zien garaien, Altsasun'e intentau zuen montatzen, ta Altsasun galera in zien, fabrika hori montatzea, ta hurrena Vigon montau zuen, Galizin. Ta Galizin e hoik montau zittuen, e montatzen hasi zian furgonetak eta furgoneta txiki bat "dos caballos" a, ta nik eskau non "ministerio agricultura" tik, ta pasau behar izan nittun bi urte zai hura entregatzeko.
-Baiño zuk urte batzuk ya bazittuzun kotxea ekarri zenuneako?
-E?

-Urte batzuk bazittuzula kotxea ekarri...?
-Bai, bai, bai, bai.
-Asike esne partzen gero?
-Soldaduskak eta horik danak ein da gero aittu nitzan ni.
-Gero...
-Gero aittu nitzan ni.
-Gero aittu ziñen?
-Bai, bai, ta gero harekin eamaten nun, eamaten nittun ta, betse laun batek'e lautzen zien ta, bion arten esne partitzen Legazpin ibilita nao ni.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. Otoitza: "Hor goian Belene..."

- **Hizlaria(k)**: Otoitzak, ZEG-016
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref**: ZEG-016/002
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:06. **Bukatu**: 00:01:06
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Otoitza: "Hor goian Belene..."

Transkripzioa

Hor goian Belene,
lau legoa Galbariora,
billatu nuan andre bat,
galdetu nion:
Ikusi dezu Jesukristo?
Bai, ikusi det,
lepuan kurutze bat
katearekin arrastaka zuala
Bere konpañia
han ikusi nitun hiru figura,
hiru dolorezko zapi batian
eman diot koroa,
eman diot giltzea,
eman diot lantzara
bere kostitu santuaren.
Lehenago edo geroago
orazio hau esanez
jungo gera Belena.
Hau egunin behin
ostiraletan hiru bider esaten duanak
aterako du purgatoriotik
anima bat.
Beria bere pekatutik,
zeruan izarrik aiña,
lurrean belarrik aiña
itsasoan hondarrik aiña
hainbeste pekatu ein badittu ´re
danak barkatuko izango dirala.

Hoi haundiya dek. Hoi: "hainbeste pekatu ein badittu ere danak barkatuak izango dirala".

Hau aitzen duanak
ikasten ez badu,
dakiñak uzten ez badio,
seiñale izango dala Josepetako zelaian.

Hoixe.

4.2. Otañoren "Aita-semeak" bertsoak

- **Hizlaria(k):** Bertsoak, ZEG-028
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref:** ZEG-028/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Otañoren 'Aita-semeak' bertso ezagunen zati bat.

Transkripzioa

... bitarteko harturik Jesus gurutzian
egiaz aita ta ama batek aztutzian
ez leike izan ondo denbora luzian.

Iritsi da ordua juan bihar dezuna
badakizu aita ta ama hemen daukazuna
beti goguan izan hemen entz...

Iritsi da ordua juan bihar dezuna
badakizu aita ta ama hemen daukazuna
beti goguan izan gaur hemen entzuna
hau da hitz baterako eskatzen zaizuna:
izan zaitez nonahi ta beti kristau ona,
beti euskalduna!

4.3. Otañoren "Amerikako Panpetan" bertso-sortako bertsoa

- **Hizlaria(k):** Bertsoak, ZEG-028
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref:** ZEG-028/002
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:01:42
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Gizonezko batek Otañoren 'Amerikako Panpetan'
izeneko bertso-sortako azken bertsoa abesten du.

Transkripzioa

...ikan maitiena,
onbu laztana, zu zera,
hargatik nator zure kolkora,
ni malkuak isurtzera,
iruditurikan natorrela

atariko intxaurpera,
beti izan nahi zaitut goguan,
baina joan nahi dut osterera,
Euskal Herriko lur maite hartan
nere hezurak uztera.

4.4. Otañoren 'Nere kabiya' bertso-sortako bertsoak

- **Hizlaria(k):** Bertsoak, ZEG-028
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref:** ZEG-028/003
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:02:32
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Otañoren 'Nere kabiya' bertso-sortako azken bi bertsoak.

Transkripzioa

Euskal Herri guztiya
maite det benetan,
nere anaiak dira
probintzi denetan.
Baiñan Naparruako
mendi alaietan,
han jaio nintzan eta
hil nahi dut han bertan.

(Elizondoko) herri
maite ta laztana,
seme bat dadukazu
aztutzen ez dana.
Beti eskatzen nago
Jangoikuagana,
hil baiño len eraman
nazala Baztana.

4.5. Gazteluk Pello 'Errota'ri botatako bertsoa

- **Hizlaria(k):** Bertsoak, ZEG-028
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref:** ZEG-028/004
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:00
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Gazteluk Pello 'Errota'ri botatako bertsoa.

Transkripzioa

Amerikara asko dijoaz
banaka eta binaka,
enpliorikan omen dabilta
alde haietan millaka;

Pello hau ere han ibillia
urte batzutan jiraka,
tabakorikan ez zuanian
pipa hutsari tiraka.

4.6. 'Goizuetan bada gizon bat' bertso-sorta

- **Hizlaria(k):** Bertsoak, ZEG-028
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref:** ZEG-028/005
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:04:31
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** 'Goizuetan bada gizon bat' bertso-sorta.

Transkripzioa

Goizuetan bada gizon bat
deitzen zaiona 'Trabuko'
hitzak faltsoak, anima txarra
ez zaio iñoiz faltako
egin dituen dilijentziak
oraindik zaizka damuko. (bis)

Aranaztikan ekarri nuen
ekarri nere andria
hobe zukian ikusi ez balu
Berdabioko atia,
gaur ez zuen hark edukiko
dadukan pesadunbria. (bis)

Aita Jaunari otoitz dagiot
nola ez naizen bakarra
hazitzekuak hor uzten ditut
bi seme ta hiru alaba
Jaun zerukuak entzun dezala
hioen amaren negarra. (bis)

4.7. 'Xenpelar' eta 'Patxi Bakallo'ren arteko bertso-trukea

- **Hizlaria(k):** Bertsoak, ZEG-028
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref:** ZEG-028/007
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:09:05
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** 'Xenpelar' eta 'Patxi Bakallo'ren arteko bertso-trukea.

Transkripzioa

Iñork baldin badaki
Oiartzungo berri,
eskumuiñak Ardotxi

eta Xenpelarri;
dibertsio polit bat
nahi genduke jarri:
birez erdi bezela
dago Bentaberri,
konbidatzen dittut
nahi badute etorri.

Desafio hori da
Bentaberrirako,
konformatzen badira
birez erdirako;
ez badute gogorik
haraiño etortzeko,
lagun bat hartuko det
nere guardirako,
berdin prestatuko naiz
Erreterirako.

Pazkua bigarren goiza
hartu nuan karta,
bestek firmatua da,
ez da zure falta;
suma ederra dezu,
eztarria alta,
etorriko naitzazu
hitz hoiak esanta
gizona konbitzia
dibertsio bat da.

Xenpelar probatzeko
egin duten masa,
gizon baten hitzari
eman diot traza;
ez Astigarragatik
honuntzago pasa,
bertara etorriko naiz,
egon zaitez lasa,
nahi dezun ordurako
eska zazu plaza.

4.8. 'Bidarraitarra' bertso-sorta

- **Hizlaria(k)**: Bertsoak, ZEG-028
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref**: ZEG-028/010
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:10:48. **Bukatu**: 00:13:19
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: 'Bidarraitarra' bertso-sorta.

Transkripzioa

Mila zortzirehun ta hemeretziyan,

urriaren hilaren bederatziyan,
gazte ta alegera, trankil bihotzian,
ontasuna franko badut interesian,
deusik ez etxian,
orain bezin aberats nintzen sortzian.

Nornahik ta zernahi erranikan ere,
bidarraitarra nauzu, baita nahi ere,
etxeko seme ona, segurki halare,
nahiz badiren herrian hobeagokoak ere,
bagire bortz haurride, enekin sei dire,
oro adiskide,
dotiaren gainetik samurtzen ez gire.

Aite zen etxeko ta ama zen kanpoko,
Jinkuak ein zituen elkarrenganako,
hiru mutikuek ta hiru neskatoko,
haurrik aski baituzte aisa bizitzeko.
ez [...] agian besterik sortzeko,
ez duk fidatzeko,
[landatuak] irriskatzen du pizteko.

Aite ezkondu zen nere amarekin,
ama aitarekin, biak elkarrekin,
orduan gazte ziren, beste zerbaitekin,
ontasunak igurri bertze haurridekin,
parte bat enekin,
enekin bainan gehigo bertze bortzekin.

Orain bagira hemen zenbait lagun,
botoila bana arno edan dezagun.
Lenik ona denez, hori jasta dezagun,
ta ona baldin bada, biga edan dezagun.
[Bila] zenbait lagun, hots, trinka dezagun,
[bila] zenbait lagun,
Diruak [...] ezagun.

4.9. 'Ehun libera balio' bertso-sortako bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Bertsoak, ZEG-028
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azurmendi Agirre, Xabier
- **Erref**: ZEG-028/012
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:14:52. **Bukatu**: 00:16:00
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: 'Ehun libera balio' bertso-sortako zenbait bertso.

Transkripzioa

Bertso berriak doazi
zortzi edo bederatzi (bis)
Urruñatik behar dut hasi
nahi dituenak ikasi.

Urruñan Iriartian
behor trukada batian (bis)
estofa txarra etxian.

Zaldi zuri-gorriya,
Bidartetik ekarriya, (bis)
Lau zango-besa zuriya,
buru [...] eroriya.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zegaman jaioa 1915ean Muño baserrian (ZEG-004/001)

Zegaman, 1915-08-04ean Aizkorripeko Asemendi Auzoko Muño baserrian jaio zen. Etxetik mezetara edo kalera ordubete inguru pasatzen zuten eta lasto argitan joaten ziren.

2. Argindarra eta paper lantegia aurrerapen nagusiak (ZEG-004/002)

Garai hartan ez zuten argirik ez urik, hamar urte zituela iritsi zen argia bere baserrira. Lehenengo Santa Barbara gainean egin zuten zentral elektriko txiki bat, gero Zegaman egin zuten. Paper lantegi ezagun bat zen Zegaman eta Izpi Santu deritzon santuari argia jarri zion.

3. Paper lantegia, baserritarren ogibide (ZEG-004/003)

Neska zein mutil paper lantegi honetara joaten ziren lanera. Baserritarrentzat gauza haundia zen lantoki hura, hileko soldata han irabazten baitzuten.

4. Aita Muñoak eta ama Asmindarrenkoa (ZEG-004/005)

Aita Muñoak zen izatez, ama berriz trenbide aldeko Asmindarrenkoa.

5. 9 senideko familiakoa (ZEG-004/006)

Eskolan oso denbora gutxi egin zuen, erdaraz ez zekiten tutik. 9 senide ziren, 5 mutil eta 4 neska eta bera bakarrik bizi da orain. Senideak izendatzen ditu.

6. Aita behizain eta osaba artzain (ZEG-004/007)

Ardiak eta behiak zituzten etxean. Udan anaia Izpi Santura joaten zen bordara ardiekin. Gaur zegamar batek dauka borda eta saletxearen jabetza. Aita behiekin eta osaba bat artzain ibiltzen ziren.

7. Gabonak aurretik Bizkaira artzain (ZEG-004/008)

Bizkaia aldera joaten ziren Durango, lurreta eta Bernagoitia aldera artzaintzara. 12 urte zituela hasi ziren Bizkaira joaten eta anai zaharrenari laguntzen zion. Errepidearen bi ertzetara ardiak baztertu eta kamioien joan-etorria nola izaten zen gogoratzen du. Izpisantutik joaten ziren Bizkaira, Gabonak aurretik.

8. Biolako "hotela", Gipuzkoa eta Bizkaia arteko artzainen biltoki (ZEG-004/009)

Bizkai aldera zihoazen artzainak Biolatik pasatzen ziren, artzainen hotela zeritzotena. Beheko suaren ondoan egon ohi ziren eta gaua pasa ostean, Durangora abiatzen ziren Deskarga portutik Kanpazar aldera. 2 egun pasatzen zituzten joanean. Pasadizo bat aipatzen du. Bizkaia inguruko herriak eta hizkera.

9. 3 hilabetez Bizkaian apopilo (ZEG-004/010)

3 hilabete igarotzen zituzten Bizkaian, Aralartik asko joaten ziren. Senar-emazte artzainak, taloak egiteko irina aldean hartuta bidean janaz joaten ziren. Apopilo egoten ziren hango baserrietan eta ordain modura batzuetan esnea eskatzen zieten, besteetan dirua. 140 bat ardi zituzten.

10. Izpisantu, ehiztarien pasoko lekua (ZEG-004/011)

12 urte zituenetik 15era Bizkaira joaten zen anaiarekin, gero Izpisantura bueltatu ziren. Artzainak izendatzen ditu. Garai batean beraien borda ingurura donostiar ehiztariak etortzen ziren pasoko lekua izaki.

11. Trinidadetan erromeria Izpisantun (ZEG-004/012)

Izpisantun erromeria egiten zen Trinidadetan. Dominikaren amak janzten zuen Espiritu Santua, amantal zuria eta gerriko beltzez. Hare eramaten zituen Zegamako lantegitik "astoa bete larrosa", ermita apaintzeko. Jendeak kandelak eramaten zituen.

12. Tabakoa nola egiten zuten (ZEG-004/015)

Tabakoa egur baten gainean pikatzen zuten, pipa erretzeko. Ardaia egosi eta lehortu egiten zuten, gero hari su eman eta puska txiki bat jartzen zuten pipa gainean. Gero metxadun metxeroa azaldu zen. Orduko tabakoa sana zen, usai ederrekoa.

13. Donostian eta Madrilen neskame (ZEG-004/016)

Donostian egon zen neskame eta baita Madrilen ere. Ahizpak Madriler a eraman zuen hura ezagutzeko eta gerra zibilak bertan harrapatu zuenez, han gelditu zen neskame 3 urtez. Han ikasi zuen erdaraz, apaiz batek erakutsita. Oroitzapen tristeak ditu eta ez du atsegin aipatzea.

14. Gerra ostean etxera bueltatu zenerako argia bazuten (ZEG-004/017)

Gerra amaitzean etxera bueltatu zen eta lehengo antzera aurkitu zuen, baina argia bazuten ordurako. Etxetik erre kara astoan joaten ziren arropak garbitzera. Iturria (Izipu iturria) etxetik urrutixeago zuten. Argia altxor preziatua zen garai hartan.

15. Urbian, Oizen eta Zalduondon artzain senarrarekin (ZEG-004/018)

Etxera itzuli eta berehala, berriz ere Donostiara bueltatu zen neskame. Ondoren Urbiara joan zen artzain senarrarekin. Abaltzisketarra zuen gizona, artzaina bera ere eta bere etxean sarri egoten zena. Aralarko ardiak saldu eta borda erosi zuen Oizen. Udazkenean Zalduondora jaisten ziren.

16. Neguak Artxanda, Abadiño, Zalduondo, Oiartzun eta Osintxun pasa zituzten (ZEG-004/021)

Negua pasatzera Artxandara eta Abadiño joaten ziren Zalduondotik, han bizi baitziren. Oiartzunen ere egon ziren eta azkeneko negua Osintxun pasa zuten.

17. Negu garain umeak koinaten zaintzapean (ZEG-004/029)

Larre aldaketa egiterakoan behorra eraman ohi zuten. Aralarko ardiak ardi musugorriak izenekoak ziren. Negu partean umeak, koinatek zaintzen zituzten errentan zuten baserrian, asko baitziren. Udan batzuk bertan geratzen ziren eskolan.

18. Urbiako Oltza bordan urte askoan bizi izandakoa (ZEG-004/030)

Oltzako Dominika deitzen diote, urte askoan egon baitzen Urbiako baserri honetan bizitzen. 26 urte zituenetik ardiak saldu arte egon zen bertan; gero ganadurik ezean ez zuten baimenik han jarraitzeko. Gaur egungo bordak nolakoak diren azaltzen du.

19. Oltzen 3 baserri, familia antzeko auzoa (ZEG-004/031)

Lehengo bordak ez ziren gaurko modukoak. Teila modura txapa jartzen zuten eta itoginak sarri izaten zituzten. Bakoitzak ardiak aparte ibiltzen zituen eta Araba aldean egoten ziren. Oltzan 3 borda zeuden eta familia antzeko bat osatzen zuten. Borda jabeen izenak.

20. Baserriko produktuak kalera saldu eta ganadua erosi zuen bizibidea ateratzeko (ZEG-004/033)

Dominikak gaztak, esnea, arkumeak, etab. saltzen zituen Osintxuko Mekolalde baserrietik. Eibarko harakin bati okela eta esnezale bati esnea saltzen zizkion, gaztak berriz Eibarrera saltzen zituen. Aurrera ateratzeko behorra, ardiak, astoa, ahuntza etab. erosi zituen.

21. Dominika etxeko lanetan; gainontzeko artzainak fondan (ZEG-004/035)

Oltzan zeuden bitartean legazpiarrak ikatza egitera joaten ziren. Oltzan taberna bat zegoen eta festa moduko bat egiten zen. Dominikak etxean lana izaten zuen, baina artzainak fondara joaten ziren gosariak eta otorduak egitera.

22. Artzaintzarekin lotutako bizimodua (ZEG-004/039)

Dominikak azkeneko negua artzain Osintxun pasa zuen. Gero Zalduondora joan zen bizitzera eta Ixidro soldadutzara joan zenean ardiak saldu eta Dominika Legazpira bueltatu zen semeen etxera. Orain ere ardiekin amesten du, faltan botatzen ditu. Paseoan gutxi ibiltzen da, baina Izpisantura urtero egiten du bisita loreak eramanez.

23. Sabela jasotzeko erremedioak (ZEG-005/004)

Sabela jasotzeko zer egin behar den azaltzen du.

24. Intsentsuaren anekdota (ZEG-005/006)

Apaiz batek mutiko bat intsentsu bila bidali zuen. Bidean zihoala, ordea, mutikoari izena ahaztu zitzaion, eta komeriak izan zituen dendariari azaltzeko zer nahi zuen.

25. Iturburu topatu eta aprobetxatzen hasi zirenekoa (ZEG-009/011)

Behin, iturburu bat aurkitu zuen Antoniok. Lehorte handi bat izan zenean, etxeko urak agortu ziren; eta, orduan, Antoniok aurkitutako iturburuari etekina ateratzen hasi ziren.

26. 90 mutiko maisu bakarrarekin (ZEG-009/015)

Zegamako eskolan ibili zen: 90 mutiko maisu batekin. Ez zuten ezer ikasten. Maisuak egurra ematen zien ihizko makilarekin. Arabako ezagun batzuen aldean, ez zuten ezer ikasten eskolan. Gau-eskolara joateko asmoa zutela, gerra etorri zen, eta bertan behera geratu ziren asmo haiek.

27. Zegamatik gerraren nondik norakoak ikusten (ZEG-009/017)

Gerra ezagutu zuen. Zegaman tiro-saioak egon ziren. Falangistak etortzen ziren, haien janzkera deskribatzen du. Falangistek baserritik ebakatu egin zituzten, ganadu eta guzti. Bizkaia aldean gerra gogorra izan zen; beraiek menditik ikusten zuten, eta beldurgarria izaten zen. Lasarteko hipodromoan abiazio-zelaia zegoen. Zegaman trintxerak bazeuden eta nolakoak ziren azaltzen du.

28. Errepublikako giroa eta gerra hasiera (ZEG-009/018)

Eskolara zihoanean, errepublika etorri zen. Garai hartan, debekatu egin zieten apaizei eskolara doktrina ematera joatea. Eskuinekoak armatu egin ziren eta Nafarroan altxamendua izan zen. Borrokak non izan ziren azaltzen du.

29. Gerran jende asko hil, baina bera soldadu joatetik libratu (ZEG-009/019)

Zegamako mutil gazte ugari hil ziren gerran, eta inguruetan beste hainbat fusilatu zituzten. Antonioren aurreko kinta eraman zuten gerrara, baina bera libratu egin zen, Bartzelona eta Madril Francoren esku geratu baitziren.

30. Soldadutzako zereginak (ZEG-009/020)

Soldadutzan 4 urte egin zituen. Mugak indartzen aritu ziren Nafarroan. Soldadu garaian gaizki egoten ziren barrakoi zahar batzuetan. Euskaldun gutxi zegoen soldadutzan berekin batera.

31. Soldadutzako zigorrak eta bizi-baldintzak (ZEG-009/021)

Euskalduna izateak arazoak ematen zituen gerraostean. Gaztelaniaz egitera behartzen zituzten. Soldadutzan bideak egitera zigortu zituzten mutil batzuk. Higiene txarra zeukaten soldadutzan. Gose handirik ez zuen pasa han, hala ere. Egunean bi erreal irabazten zuten. Ogia tabakoaren truk lortzen zuen Antoniok. Dilista asko jandakoa da.

32. Erleetarako zaletasuna gaztetatik (ZEG-009/023)

Erleetarako zaletasuna 16 urterekin hasi zitzaien. Etxean beste inori ez zitzaizkion erleak gustatzen eta liburu batetik ikasi zuen erleentzako kaxak nola egin. Erlekumea janari truk lortu zuen, baina galdu egin zuen. Geroago, beste bat ekarri zioten eta poz izugarria hartu zuen.

33. Erle bakoitzaren funtzioa (ZEG-009/024)

Erle klase asko daude. Erle gorriak galdu egin ziren, beste mota batzuekin gurutzatu baitzituzten. Erle mota bakoitzaren funtzioa eta ezaugarriak azaltzen ditu.

34. Erleen ingurua eta jokabidea (ZEG-009/025)

Erlea ibiltzeko, eguraldi beroa behar da. Erle bakoitza 3 kilometro ibiltzeko gai dela esaten dute. Norbaitek erleen ura hartzen badu, erleek eraso egiten diote. Ura loreetatik biltzen dute erleek.

35. Erlezaintzako jakinduria (ZEG-009/026)

Erlezainek ezta nondik eta nola lortzen duten azaltzen du. Erleen bizilekuari buruz hitz egiten du.

36. Erleak ugaritzeko bideak (ZEG-009/027)

Antoniok ez du sekula erlerik saldu. Erleen portaera jakinda, erleak ugaritzeko egin beharrekoak azaltzen ditu.

37. Erleak edukitzeko moduak lehen eta orain (ZEG-009/028)

Mota askotako erle-kaxak daude. Lehen zuhaitzetan zuloak egiten zituzten kaxak egin beharrean.

38. Erleen kosketatik babesteko neurriak (ZEG-009/029)

Erleek koska asko egin izan diote Antoniori. Batzuek erleen pozoari alergia diote, eta kalte handia egin diezaike pozoiak. Erleek koska ez egiteko, zer jantzi behar izaten zuen azaltzen du. Behin erle pila batek eraso egin zionekoa azaltzen du; azkenean, kearekin babestu zen.

39. Ezti garbia lortzeko modua (ZEG-009/030)

Erle-kaxak non uzten zituen azaltzen du. Ezti garbia lortzeko, iragazi egiten da. Eztiaren kolorea ez da beti berdina izaten, jatorriko lorearen arabera baizik. "Mil flores" ezta erakusten du.

40. Erleak hango eta hemengo loreetan (ZEG-009/033)

Kilo erdi ezti egiteko, lore askotan ibili behar dute erleek. Ez dute lore mota bakarretik hartzen behar dutena.

41. Erlearen portaera (ZEG-009/035)

Eztia saldu egiten zuten kooperatiban, partikularrei... Erleak kearekin ikaratzen dira.

42. Erlearen pozoia eta eztiaren gozoa (ZEG-009/037)

Erleak miztoan edukitzen du pozoia. Erleak koska eginez gero, ozpina ematea edo belar batzuekin igurztea ona izaten da. Garai batean, erlategiak etxe guztietan egoten ziren, azukrearen ordeaz erabiltzeko.

43. Polinizazioa (ZEG-009/038)

Erleak polinizatu egiten ditu loreak. Polinizazioa nola izaten den azaltzen du.

44. Erlezaintzan hasi zenekoa (ZEG-009/040)

16 urterekin hasi zen erlezaintzan. Bera bakarrik ibiltzen zen eta bere kabuz ikasi zuen liburutik. Erleengana zenbatero joaten zen aipatzen du.

45. Erle-kaxak lehen eta orain (ZEG-009/042)

Erleak kaxa barruan sartzea erraza da. Lehen kaxak egurrezkoak zirenean, gurutzea jartzen zitzairen.

46. Erleen eta liztorren ezaugarriak (ZEG-009/044)

Argizaria egiten zuten ezta apartatutakoan. Kandelak egiten zituen etxe bati saltzen zion argizaria Antoniok. Erleak ez ziren nahasten, bakoitza bere familiarekin bizi baitzen. Liztorrak eta erleak antzekoak izanda ere, badituzte aldeak.

47. Erleen gaixotasunak (ZEG-009/045)

Erleek gaitzak izaten dituzte: besteak beste, beherakoa. Orduan botika eman behar izaten zaie. Erleak osasuntsu ez badaude, ez dute ezirik egiten eta kalte handiak eragiten ditu erleen artean.

48. Erleen ziztadak onuragarriak ote? (ZEG-009/047)

Erleen ziztada aurpegitik kanpo izanez gero, ona omen da erreumarako.

49. Erleen etxeak eta haien antolamendua (ZEG-009/048)

Erleek ezta eta argizaria egiten dute. Arrautzak zuloetan jartzen dituzte. Erleek beraiek egiten dituzte etxeak; nolakoak izaten diren deskribatzen du. Erle batetik bestera zer alde dagoen azaltzen du. Hiru zulo mota daude erle mota bakoitzarentzat.

50. Erleen izaera: zer gustuko eta zer gorroto (ZEG-009/051)

Erleen artean, erregina bizitzen da gehien. Erregina hiltzean, beste bat sortzen dute berehala. Erle batek hiru asteko bizia edukitzen duela esaten dute. Erleak azkarrak eta langileak dira. Keak uxatu egiten ditu erleak. Lehen behorren simaurrari sua emanda egiten zuten kea; orain, ordea, kartoiari su emanda.

51. Alemani bisitan, janaria bueltan (ZEG-009/053)

Erratzun soldadutzan egon zenean, apaiz batek azalpen onak ematen zizkien. Ile-apaintzailearengana joaten zenean, alemanengana joaten ziren mugara eta alemanek denetik ematen zieten jateko.

52. Otoitza: "Ohera noa Jesus esanda..." (ZEG-016/004)

Otoitza: "Ohera noa Jesus esanda..."

53. Uharte Arakilgo San Migel aingeruaren inguruko bertsoak (ZEG-028/008)

Uharte Arakilgo San Migel aingeruaren inguruko bertsoak.

54. Karlisten inguruko bertsoa (ZEG-028/009)

Karlisten inguruko bertsoa.

55. Karlistada garaiko bertsoak (ZEG-028/011)

Karlistada garaiko bertsoak, Karlos V.a, Isabel erregina eta Tomas Zumalakarregi aipatzen dituenak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com